

# KOSTUEN EGITURA

Proiektua bat aurrera eramateko, dena lehenago pentsatu eta antolatu behar da. Horregatik, nahiz eta gure helburua irabaziak jasotzea izan, aurretik kostuak daude, eta horien zerrenda bat egin behar da. Kostu mota ezberdinak daude, eta kasu honetan aldakorrak eta finakoak ezberdinduko ditugu.

Taulan zerrendatutakoak proiektuaren hasieran edukiko genituzken gastuak lirateke. Hauek bakarrik behin ordaindu beharko genituzke, eta guztira 410,99€ dira, logoa egiteko aplikazioa, gure proiektua ezagutarazteko publizitatea eta tuperrak prestatzeko beharrezko materiala aintzat harturik.

<u>HASIERAKO INBERTSIOA</u>	
ClipStudio	0,99€
Publizitatea	60€
Sukaldaritza tresnak	350€
<b>GUZTIRA</b>	<b>410,99€</b>

Jarraian, kostu finakoak azalduko ditugu, hauek beti berdinak izango dira.

<u>KOSTU FINKOAK</u>		
	Hilabetean	Urtean
UGGASA	90€	$90 \times 12 = 1.080€$
Soldatak	5.900€	$5900 \times 12 = 70.800€$
Domeinua	15€	$15 \times 12 = 180€$
Gasolina	200€	$200 \times 12 = 2.400€$
Publizitatea	100€	$100 \times 12 = 1.200€$
<b>GUZTIRA</b>	<b>6.305€</b>	<b>75.660€</b>

Soldatak 3 zatitan banatuta daude, diru kantitatearen arabera. Alde batetik gu hirurok gaude, bestetik nutrizionista eta azkenik sukaldaria. Gutxien irabaziko luketenak sukaldaria eta nutrizionista izango lirateke, guk baino ordu gutxiago lan egiten baitute. Sukaldariak bakarrik asteburuetan egin behar luke lan, tuperrak prestatzeko, eta nutrizionistak bakarrik bezero bakoitzarekin behin elkartu beharko zen, aldiz, guk proiektua kudeatzeaz gain, tuperrak banatuko ditugu, gutako bik gidatzeko baimena dute eta. Soldaten ehunekoei dagokionez, 5.900€ horietatik, sukaldariak %5 jasoko luke, aldiz nutrizionistak %10 eta gutako partaide bakoitzak %25.

Orain kostu aldakorrak azalduko ditugu, hauek ekoizpenaren arabera aldatzen direnak dira.

<b>KOSTU ALDAKORRAK</b>		
	Hilabetean	Urtean
Agerre baserria	400€	400 x 12 = 4.800€
Intsausti harategia	590€	590 x 12 = 7.080€
Rueda fruta-denda	550€	550 x 12 = 6.600€
Izarra arraindegia	140€	140 x 12 = 1.680€
Ametsa janari-denda	65€	65 x 12 = 780€
Eroski	100€	100 x 12 = 1.200€
Tuperrak	40€	40 x 12 = 480€
<b>GUZTIRA</b>	1.885€	22.620€
<b>TOTALA</b>	8.190€	98.280€

Aurreko datuak kontuan izanda, aurreikusten dugu hilean 8.484€-ko gastuak izango ditugula eta 101.808€ urtean, hasierako gastuak kontuan izan gabe. Hala ere, kostuak aldatu dezakete eskaera edo beste faktore batzuen eraginez.